

DIRU-ITURRIAK

Negozio-proposamena ondo diseinatzeak eta modu egokian abian jartzeak, diru-sarrerak eta etekinak lortzea ahalbidetuko digu.

Horregatik, garrantzitsua da jakitea zenbat eta nola ordaintzeko prest dauden bezeroak eskaintzen diegunaren truke.

Gure proiektua irabazi asmorik gabeko enpresa denez, ez dugu inolako irabazi ekonomikorik jasotzen. Hau dela eta, Udalari 3000 euroko laguntza ekonomikoa eskatu genion, Ekintzaile gazteei laguntzeko bekan sartu ginen. Diru horretako 2500 euro, Alboka Soft Tecnologías de la Información S.L. enpresa ordaintzeko erabiliko dugu, hark gure doako txartelak egingo ditu eta gure panel digitalak programatuko ditu. Bertan ikusiko da bezeroak zenbat birziklatu duen. Horrez gain, haren logoa ipiniko ditugu gure zakarrontzietan haren enpresaren publizitatea egiteko. Gardelegiari tutuetako materiala ordaindu behar diegu, horretarako 3000 euroetatik 500 euro materialara bideratuko dugu. Gainera, irabazi ekonomikoren bat jasoko duten gure bazkide bakarrak izango dira, ez udalak, ez Elkar dendak, ez Etorkizun supermerkatuak, ez Fundicion arropa dendak ez baitute kobratuko.

Lehen aipatu ditugunak, ez dute dirurik jasoko, baizik eta, ordainduko diegu publizitatearekin, haien logoa gure zakarrontzietan jarriko dugu ere. Horren truke, haiek deskontuak eskeiniko dizkigute arropan, janarian eta eskolako materialean. Deskontu horiek, parte hartuko duten pertsonentzat izango dira, pizgarri moduan erabiliko ditugu. Azaldu dugun moduan, jendeak birziklatutako arabera deskontuak izango ditu ala ez. Adibidez, Elkar dendan deskontuak eskola urtea hazten denean, hau da, irailean jendeak deskontuak jasoko ditu. Fundicion arropa dendan eta Etorkizun supermerkatuan bale bat urtebeterako emango diegu birziklatu duten jendeari han kontsumitu ahal izateko.

